



DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, MUSIKA ESKOLA BEREZIKO IRAKASLE LANPOSTUAN OBOE ESPEZIALITATEAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEKO JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA BEREZIAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA.

Iruñeko Udalak, Giza Baliabideetako zuzendaritzak 2020ko urtarrilaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, honako deialdi hau onetsi du:

OINARRIAK

1.- Deialdia iragartzen da, izangai-zerrenda bat hautaprobek bitartez osatzeko, Musika Eskola Bereziko irakasle lanpostuan oboe espezialitatean aritze aldera, Iruñeko Udaleko Joaquín Maya Musika Eskola Berezian gertatzen ahal diren beharrak aldi baterako asetzeari begira.

2.- Izangaien betekizunak.

2.1. Izangaiek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikagarria duen eremuko estatu batekoa.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetako herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta ezkontideenek –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Jarraian aipatzen diren titulu-takoko bat edukitzea, aukeran, edo hura erdiesteko maneran egotea, eskabideak aurkezteko muga-egunean.

1. Goi-mailako titulua oboe espezialitatean edo, bestela, espezialitate horren Gradu Ertaineko titulua, irailaren 10eko Musika Kontserbatorioen Araudi Orokorrari buruzko 2618/1966 Dekretuarekin bat emana.

2. Unibertsitate-diplomatura edo -gradua, Ingeniaritza Teknikoko, Arkitekto Teknikoko edo horien baliokidea den titulua eta Gradu Ertaineko titulu profesionala oboe espezialitatean.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko dute.

d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea, bete behar dituzten eginkizunetan aritzeko.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo Administrazio Publikoren zerbitzuetatik bereizita ere.



Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitorten bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.

2.2. Deialdi honi dagokion oboe espezialitateko irakasle lanpostuan aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute euskara berriazko betekizun gisa dituzten lanpostuetan aritzeko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

2.3. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri hauen 2.1. c) letran eta 2.2 zenbakian eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.4. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

3.- Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izanen da, deialdia iragartzen duen aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Deialdiaren testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es webgunean eta Herritarrendako Arreta Bulegoan.

3.2. Deialdian parte hartzeko eskabideak Iruñeko Udalaren edozein Erregistrotan aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bideetako edozein erabiliz.

Eskabideak I. eranskinean jasotako ereduari lotuko zaizkio. Eredu hori eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren Herritarrendako Arreta bulegoetan, bai eta Interneten ere, www.pamplona.es/eu webgunean.

Parte hartzeko eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Eskabidearekin batera, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, betiere ezertan galarazi gabe kontratatuak izateko deituak direnean jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotuak aurkezteko beharra:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen dituen agiriarena, eta behar izatera, deialdiaren 2.1. a) oinarrian eskatutako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzko agiriarenak.
- 2.1. c) oinarrian aipatu tituluaren edo tituluen fotokopia.
- Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) fotokopia, edo baliokide batena, halakorik izanez gero,
- 2.2. oinarrian jasotako ondorioetarako.
- Ziurtagiria, izena emateko eskubide tasa dela-eta 11,00 euro Iruñeko Udalari ordaindu izana egiaztatzeko. Tasa hori ordaindu ezean, izangaia bazterturik geldituko da.



Tasa Iruñeko Udalak honako finantza-entitate hauetan dituen kontuetan ordaindu daiteke, haietan dirua sartuz edo haietara banku-transferentzia eginez: Caixabank (ES04 2100 2173 8102 0022 2762), Laboral Kutxa (ES22 3035 0039 3403 9090 0005) eta Nafarroako Rural Kutxa (ES07 3008 0001 1411 0344 7429). Bestela, Udaleko Diruzaintzan (Merkatuko kalea 7-9, 2. solairua) ere ordaindu daiteke. Ordainagirian ezinbestean agertuko dira honako datu hauek:

- Izangaiaren izen-abizenak.
- NAN / IFZ.
- Ordainketa zein kontutan egin den eta horren zenbakia.
- Kontzeptua: Oboe deialdia.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta ordura arte haien gauzatutako egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, eskabidean egindako faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

3.3. Eskabidearekin batera, desgaitasunen bat aitortuta duten izangaiek hori frogatzeko agiria – organo eskudun batek emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer nolako desgaitasuna duten, eta eskatutako egokitzapenak.

4.- Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta zerrenda ikusgai paratuko da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es webgunean eta Udalaren iragarki-taulan, Udaletxean bertan, zerrendan izangaien izena, abizenak eta NANA adierazita.

Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta eskabidean egindako akatsak zuzentzeko, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda (izena, abizenak eta NANA agertuko dira, eta, baztertuen kasuan, bazterketaren zergatia), eta agindua emanen du hori argitaratzeko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako hautapropa egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Izangaietan inor bazterturik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da (izena, abizenak eta NANA adierazita) eta Iruñeko Udalaren webgunean nahiz iragarki-taulan argitaratuko da, hautapropa egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdietan parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte.



5.- Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Marisol Malón García, Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko ikasketaburua.

Epaimahaiburu ordezkoa: Ángel Otxotorena Zabalza, Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko tronpeta-irakaslea.

Epaimahaikidea: Juan Mari Ruiz Alberca, Pablo Sarasate kontserbatorio profesionaleko oboe-irakaslea.

Epaimahaikide ordezkoa: Ferrán Tamarit, Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko fagot-irakaslea.

Epaimahaikidea: María Arratibel Aramburo, Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko oboe-irakaslea.

Epaimahaikide ordezkoa: Alfonso Iturria Amadoz, Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko txistu-irakaslea.

Epaimahaikidea: Alberto Yarnoz Yaben, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkoa: Sandra Pascal Garcés, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide-idazkaria: Nuria Abadía Lacosta, Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko Piano-irakaslea.

Epaimahaikide-idazkari ordezkoa: María José Ros Rodríguez, Joaquín Maya Musika Eskola Bereziko Ganbera-musikako irakaslea.

5.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorreko Giza Baliabideetako zuzendaritzari jakinarazi hori, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 2ko 40/2015 Legean horretarako aurreikusiak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

Epaimahaiaren osaera aldatzen bada, epaimahaikideek parte ez hartzeko edota haiek errefusatzeko legez ezarritako kasuak direla-eta, jendaurrean emanen da horren berri izangai onartuen eta baztertuen zerrendekin batera.

5.3. Epaimahaia hautaprobak ospatu baino lehen eratuko da.

Epaimahaia ezin izanen da ez eratu, ez jardun gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe, ezta jardun ere epaimahaiburua eta idazkaria edo haien ordezkari direnak bertan ez daudelarik.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdien oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.



5.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake probarako. Aholkulari horiek haien espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta horiexetan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6.- Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

6.1. Probak. Hautapen-prozesuak bi proba edukiko ditu:

a) Lehen proba: interpretazio proba. Obra bat edo gehiago, edo haien mugimenduak, jo beharko dituzte, 10 minutu inguruan. Epaimahaiak egoki jotako unean eman dezake proba bukatutzat.

Jo beharreko erreperitorioak akonpainamendurik behar badu, negatiboki balora daiteke erreperitorio-jotzailerik edo akonpainamenduko bestelako musikaririk ez aritzea.

Epaimahaiari partituraren bi kopia eman behar zaizkio.

Proba honetan gehienez ere 15 puntuko balorazioa emanen da. Bazterturik geldituko dira gutxienez 8 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

Honako alderdi hauek baloratuko dira: testuaren doitasuna, erritmo-sentimendua, agogikak, soinu-planoak, soinuaren kalitatea, soinuaren oreka –pasarte eta testura bakoitzari egokitua–, koloreak, dinamikak, fraseatzea, komunikazioa, adierazkortasuna, sentikortasuna, soinu-irudimena, barne-entzumena, entzumen-sentikortasuna, instrumentuaren kontrola, kontrol psikologikoa, egituraren gaineko kontzientzia musikala, interpretazio estilistikoa, memoria, sinkronizazioa, elkar ulertze artistikoa, etab.

b) Bigarren proba. Proba praktikoa: Izangaiek 10 minutuko eskola-saio bat emanen diote Musika Eskolan ikasten ari den edozein mailatako ikasle bati. Epaimahaiak egoki jotako unean eman dezake proba bukatutzat.

Proba honetan gehienez ere 35 puntuko balorazioa emanen da, eta bazterturik geldituko dira gutxienez 18 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

Honako alderdi hauek baloratuko dira: komunikazioa, ikaslearekiko harremana, baliabideak eta estrategiak egokitu eta sortzeko gaitasuna –obraren edo ikaslearen zailtasunak bideratze aldera–, musikako adibideen erabilera, baliabide eta estrategia ezberdinen erabilera helburu beti musikala lortzeko, eta izangaiak egoki jo eta erabilitako beste zenbait alderdi.

Epaimahaiak egoki jotzen dituen argibideak oro eskatzen ahalko ditu.

Epaimahaiak erabaki dezake bi probak egun berean edo egun ezberdinetan egitea.

Bi probak grabatuko dira, hala irudian nola soinuan, eta Iruñeko Udalak gordeko ditu grabazioak, datu horien tratamendutik Udalarari etor dakiokkeen erantzukizunik egon bitartean. Informazio hori legezko interesdunei jakinaraz dakieke.

6.2. Probetarako deialdi bakarra egingen da, eta izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, AIZ edo pasaportearen aldean dutela azalduko dira hartara. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak baztertuta geldituko dira.



6.3. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoen aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

6.4. Behin probak amaituta, Epaimahaiak Iruñeko Udalaren webgunean (www.iruna.eus) argitaratuko ditu izangaiek eskuraturiko puntuazioak (izangaien izena, abizenak, NANA eta puntuazioa adierazita), eta 3 egun balioduneko epea emanen du interesdunek erreklamazioak egin ditzaten eta eskubidez komeni zaien guztia alega dezaten balorazioei buruz.

7.- Gainditu dutenen zerrenda, izangai-zerrenda eta deia.

7.1. Behin proben kalifikazioa bukatuta, Epaimahaiak Iruñeko Udalaren webgunean eta Musika Eskolako iragarki-taulan argitaratuko du gainditu dutenen zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran (izena, abizenak, NANA eta lortutako puntuazioa agertuko dira). Halaber, Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dio zerrenda, onetsi dezan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

Puntuazioan berdinketarik bada, adinez zaharrena den izangaiari emanen zaio lehentasuna; berdinketak bere horretan jarraituz gero, zozketa bidez ebaztuko da.

Izangai-zerrendak izangaiek deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei osasun-azterketa bat eginen zaie, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

7.2. Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko du izangai-zerrenda, izangaiek deitzeko hurrenkerari lotuta (izena, abizenak, NANA eta lortutako puntuazioa agertuko dira), eta hori ikusgai paratuko da Udalaren iragarki-taulan eta www.pamplona.es webgunean.

7.3. Gainditzuten duten izangaiei Iruñeko Udalean sortzen diren beharren arabera deitzen ahalko zaie, arau hauetan ezarritakoarekin bat: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak; deialdi honen oinarriak; Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea arautzen duena–, eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren Xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo indarreko legeekin bat kautotua aurkeztuta.

Halaber, izangaiek, kontratatutak izateko deia jasotzen dutenean, aurkeztu beharko dute Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko egiaztagiria, frogatzeko epai irmo baten bidez kondenarik jaso ez izana sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

8.-Errekurtsoak.



Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsu hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsua, egintza zein organok egin eta horri zuzendua, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsuak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazpena egiteko.

Iruñea - Javier Morrás Iturmendi, Giza Baliabideetako zuzendaria.



I. ERANSKINA

ESKABIDEA, DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, MUSIKA ESKOLA BEREZIKO IRAKASLE-LANPOSTUAN –OBOE ESPEZIALITATEAN– ALDI BATERAKO ARITZE ALDERA

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ		JAIOTEGUNA
NAZIONALITATEA		EGUNGO HELBIDEA
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

Desgaitasunaren egiaztapena (hala badagokio, soilik).

- Desgaitasuna dut, eta eskabidearekin batera egiaztatzen dut.
- Que por razón de su discapacidad, solicita la adaptación que se adjunta por los motivos que se expresan. (beste orri batean).

AZALPENA:

Ez dut eritasun edo akats fisikorik edo psikikorik, karguan aritzea galarazten didanik, eta ez dut indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naiz diziplina-espediente bidez berezia izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez nago desgaituta edo gabetuta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz eta deialdiko baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Ez dut epai irmo baten bidez kondenarik jaso sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobei bidez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian, MUSIKA ESKOLA BEREZIKO IRAKASLE lanpostuan –OBOE ESPEZIALITATEAN– aldi baterako kontratu bidez aritze aldera. Deialdiaren iragarkia 2019ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen,aren(e)koan.

DATUEN BABESA. Iruñeko Udala da arduradun botere publikoak gauzatzuz egiten diren lan-deialdiak kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduaz.

Oinarri Juridikoa: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari buruzkoa.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak zertarako bildu diren eta helburu hori betetzeko behar den bitartean kontserbatuko dira, eta biltegiatuko dira Udalarri haien erabileratik etor dakioken erantzukizunik eduki bitartean. Halaber, bete behar dira Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako kontserbazio-arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak epaileei eta epaitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeak betez, eta argitara emanen dira Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan, deialdian adierazitakoarekin bat.

Eskubideak: Le informamos de que tiene derecho a acceder a los datos, rectificarlos en el caso de que no sean correctos y suprimirlos dirigiéndose al Registro General (C/Mayor 2, 31001 de Pamplona) o a la sede electrónica (www.pamplona.es). Halaber, interesdunek erreklamazio bat egin dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentziari zuzenduta (Jorge Juan k., 6, 28001, Madril) idazki bat aurkeztuz edo egoitza elektronikoaren bidez (www.agpd.es)

Iruñean, 2019koaren(e)(a)n
(Sinadura)